

## UPV/EHU ETA FAKULTATEKO INFORMATIKAKO GELARA SARTZEKO PASAHITZAK

**Erabiltzaile izen bat** esleitu zaizu, UPV/EHUren aplikazioetara sartzeko aukera emango izuna. **Behin-behineko pasahitza** ere esleitu zaizu eta **posta-kontua**.

Sistemara sartuko zaren lehenengo aldian aldatu egin beharko duzu behin-behineko pasahitza, eta beste bat idatzi.

Pasahitza aldatzeko orrian esteka bat dago, eta bertan aurkituko dituzun dokumentu teknikoetan azaltzen da pasahitzak nolakoak izan behar diren (gutxieneko luzera, karaktere mota, hitz arruntak ez erabiltzea...).

Kontu horren bidez zerbitzu hauetara sartu ahal izango zara, besteak beste: GAUR, moodle, posta elektronikoa, **Fakultateko Informatikako gelak (ordenagailuak)**, wifi (eduroam), bildu, vpn

### GOMENDIOAK

Gomendatzen dizugu aukeratu dezazula pasahitzak berreskuratzeko era bat, beharreskoa izango baita pasahitza galtzen baduzu:

- Modu bat izan daiteke telefono zenbaki bat ematea. Hori emanda, pasahitza galtzen baduzu, SMS baten bidaliko zaizu pasahitz berria.
- Beste modu bat da erronka galdera batzuk erantzutea. Pasahitza galduz gero, galdera horiek zuzen erantzuten badituzu, pasahitza berreskuratu ahal izango duzu.

Sistema bien gaineko informazioa hemen:

<https://www.ehu.es/bilatu>

Kontuaren erabilerei buruzko informazio gehiago hemen:

<http://www.ehu.es/webtic>

Informazio gehiago: **CAU telefona: 945 014400**